

## NIK ZURI ON RAMON ARTOLA

---

Bururatzian euskaldun on bat  
berotutzentzait odola,  
nere barrena bada iſillik  
eziñ dagola iñola;  
bitarte ontan oroitutzen naiz  
gizon prestu bat Artola,  
nere gisara maite duena  
Gernikan dagon arbola.

Argi apur bat Jaungoikoari  
barrendik diyot eskatzen,  
asi nediyen albadinbadet  
Artola zeindan esaten;  
lanikan asko Euskal-erriyan  
beste seme bat topatzen  
Ama euskera onek bezela  
oteduena mintzatzen.

Bertsuetako izugarriya,  
ipua sortzen obia,  
alde danetan artakua da,  
biotzez oso noblia;  
lagun artian ezda esanik  
guzientzako maitia,  
au degu bada mundu onetan  
euskaldun paregabia.

Gauza zallikan ezda onentzat  
naiz lore eta pistiyak,  
baldiñ bersorik ipintzen badu  
jarriko ditu guziyak;  
egaztiyakiñ ezda esanik  
aundiayak eta chikiyak,  
fruta, arbolak, landare gazte,  
zelaicho ta iturriyak.

Ondo dakite zeiñdan Artola  
nik orla esan gaberik,  
oraiñ artian ezda sortu  
beste bat paretzekorik;  
eziñ liteke bada iñola  
ez artu ontan dudarik,  
mundu onetan jaioko dala  
bat eramango diyonik.

Agur zuri On Ramon Artola  
agur bañan gero arte,  
oraindikan bai bertso batzuek  
irakurri nai nituke;  
beste gauza bat oso barrendik  
oraiñ esan nainizuke,  
zu bezelako gizon abillak  
betiko biar luteke.

CAYETANO SANCHEZ.

---